

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Hasierako onespena ematea Gaubeako eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen udal arautegiari

Udalbatzak, 2021eko martxoaren 5ean egindako bilkura berezian, erabaki zuen hasierako onespena ematea Gaubeako eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen udal arautegiari, eta, hala, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 eta 70.2 artikuluetan eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.2 artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da espedientea hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aukera izan dadin hura aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Epe hori igarota ez bada alegaziorik aurkeztu, behin betiko onetsizat joko da Gaubeako eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua ematea arautzen duen udal arautegia, eta testu osoa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango da indarrean.

Gaubea, 2021eko uztailaren 12a

Alkate-lehendakaria
GORKA SALAZAR SENSO